

## GOBERNU BATZARRA

2014. 11.14

**Alkatea:** Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko azaroaren 14an, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko:

**Ibai Iriarte San Vicente**

**Zinegotziak:**

**Lore Agirre Zipitria**  
**Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez.**

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-Euskal Herria 1-b eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko kontratuaren 10. ziurtagiria (170/14 faktura).

**Idazkaria:**

**Jose Luis Unanue Ugalde.**

3.- Tolosako Beotibar Frontoiko Aldagelak Zaharberritzeko kontratuaren 2. ziurtagiria-likidazioa (89/14) faktura.

**Beh. Beh. Kontuhartzaitzako**  
**Teknikaria:**

4.-Langunea Tolosaldea 2014 programaren barruan diru laguntza ematea.

**Amaia Olaetxea Amonarriz.**

5.-2013-2014ko igeriketa kanpainaren dirulaguntzak.

6.-35/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko azaroaren 7an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### 2.- Euskal Herria 1-b eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko kontratuaren 10. ziurtagiria (170/14 faktura).

Gaia mahai gainean geratu da txosten tekniko baten bidez justifikatu behar delako aurrekontuaren igoera.

### **3.- Tolosako Beotibar Frontoiko Aldagelak Zaharbertzeko kontratuaren 2. ziurtagiria-likidazioa (89/14) faktura.**

Udaleko Gobernu Batzarraren ebazpen bidez, 2014ko uztailaren 4an, Urkaz Eraikuntzak, S.L., enpresari esleitu zitzaion Tolosako Beotibar Frontoiko aldagelak zaharbertzeko obren kontratua, 74.893,68€ (BEZa barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Bi mila hamalauko urriaren 28an, obraren zuzendaritzak 2. ziurtagiria eta likidazioa aurkeztu du, 45.288,13 €-koa eta 67.570,28, hurrunez hurrun.

Ziurtagiri hau aztertuta eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola aipatutako ziurtagiriari, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

#### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Tolosako Beotibar Frontoiko aldagelak zaharbertzeko obren likidazioa onartzea, 67.570,28 eurokoa (BEZa barne) .

**BIGARRENA**.- Tolosako Beotibar frontoiko aldagelak zaharbertzeko obren kontratuaren 2. ziurtagiria onartzea, 45.288,13 eurokoa (BEZa barne).

**HIRUGRRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Urkaz Eraikuntzak, S.L., enpresari.

### **4.- Langunea Tolosaldea 2014 programaren barruan diru laguntza ematea.**

Lanbideren zuzendari nagusiaren 2013ko urriaren 30eko Ebazpenak ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZEKO deialdia onartu zuen.

Hori dela eta, 2014ko maiatzaren 16an, Tolosako Udalak eta Tolosaldea Garatzenek hitzarmena sinatu zuten "Langunea Tolosaldea 2014" proiektua aurrera eramateko.

2014ko irailaren 26ko 2014/1231 Alkate Dekretu bidez, Udalak erabaki zuen Lanbideri dirulaguntza eskatzea.

Ildo horretatik, hainbat enpresek interesa azaldu dute "Langunea Tolosaldean 2014" programan parte hartzeko eta programako partaideak kontratatzeko.

Hau dela eta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Ondoren agertzen den enpresari dirulaguntza hau ematea, beti ere azalpen zatian aipatutako programak xedatzen duen baldintzak eta gauzatuko den hitzarmenean jarritakoak betetzen baditu:

Empresa	Kontratu kopurua	Kontratu iraupena	Lanaldia	Langilea	Dirulaguntza
Productos e Instalaciones Metálicas Ferraga S.L.	1	3 hilabete	Osoa	R.M.I.	3.000,00

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Ingurumen Enplegu eta Garapen ekonomikoa departamentuari.

### 5.- 2013-2014ko igeriketa kanpainaren dirulaguntzak.

Kirol arlotik 2013-14 ikasturteko igeriketa kanpainaren diru laguntzen banaketa aurkeztu da. Guztira 14.999,99 euro banatuko dira.

Kontuan izanik 2005. urtetik Tolosako Udalak herriko ikastetxeen igeriketa kanpainaren gastuak bere gain hartzen dituela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Honoko banaketa onartzea 2013-14 ikasturteko igeriketa kanpaina ikastetxeen artean aurrera eramateko:

### IGERIKETA KANPAINA 2013-2014 DIRU LAGUNTZAREN BANAKETA

IKASTETXEAK	IGERIKETA KANPAINA 1-3 MAILA	BEREZIEN KANPAINA	GUZTIRA
HIRUKIDE	4.587,75 €	1.191,84 €	5.779,59 €
LASKORAIN	4.587,75 €	.-	4.587,75 €
SAMANIEGO	3.440,81 €	1.191,84 €	4.632,65 €
GUZTIRA	12.616,31 €	2.383,68 €	14.999,99 €

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kirol departamentuari, Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

**6.- 35/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **35/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **228.514,42** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- **35/2014** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**